

## 6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Laguntza pertsonala eskainiko dugu telefonoaren bitartez, chat online baten bitartez edo e-postaren bitartez (gure kontaktu guztiak web orrialdean sartzen ikusiko den lehen gauza izango da).

Ohiko galderak jarriko ditugu web orrian bezeroek izan ahal duten zalantzak argitzeko, bide batez lana aurreztea lortuko dugu. Inkestaren galdera ohikoenak jarriko ditugu.

Arazoa ez bada argitzen bideodeiak egingo ditugu aurrez aurre hitz egiteko bezeroekin. Hemen emango diogu bezeroari tratu pertsonalago bat, horrela haiek bereziagoak eta maiteagoak sentituko dira gure partez.

Baina bideodeia eta gero beraien galderak ez badira erantzun, denda fisikora etorri ahalko dira. Hemen egongo dira langile batzuk gure produktua oso ondo esagutzen dutenak eta horri esker argituko ahalko diote bezeroei galdera guztiak.

Hilero inkestak bidaliko dizkiegu bezeroei haien iritzia produktuari buruz eta beraien iritzi pertsonalak jakiteko. Inkesta hauek erantzuterakoan bezeroek deskontu pertsonalak izango dituzte produktu batzuetan. Honen bitartez bezeroak inkesta guztiak erantzutea nahiko genuke. Bezeroek aukera izango dute haien iritzia web orrian argitaratzeko. Hilabetearen bukaeran sariak egongo dira inkestak erantzuten dituzten bezeroen artean.